

Lehoinabarra

DEFINIZIOA. Lehoinabarra (edo *leopardo*) gorputz luzea eta hanka motzak dituen katukien familiako ugaztun haragijalea da.

EZAUGARRIAK. Lehoinabarrek 1 eta 1,5 m arteko luzera dute, kontuan izan gabe 75 eta 100 cm artean neurtzen duen buztana. 45 eta 65 cm arteko altuera dute eta 90 kg-ko pisua izatera iritsi daitezke. Ile motza dute, nahiz eta mendietan bizi diren lehoinabarrena luzeagoa izaten den. Gehienek kolore horixka edota zurixka eta orban biribiltsu beltzak dituzte. Lehoinabar batzuk beltzak dira eta animalia horiei *pantera beltzak* deitzen zaie.



Buru handia eta biribiltsua dute, lepo oso motza eta hanka luzeak. Belarriak gris kolorekoak dira eta begiak hori-berdexkak.

Bista eta entzumen oso onak dituzte. Zentzumen hauek oso erabilgarriak dira ehizan egiteko. Gainera, ugaztun hauek oso azkarrak dira, eta 72 km/h-ko abiadurara heldu daitezke.

12-15 urte bizi dira batez beste. Bakar-bakarrik bizi ohi dira ugaltzeko momentura arte, eta orduan beste sexuko lehoinabarrak bilatzen saiatzen dira. Denok dakigu katuek ez dutela gustuko uretan ibiltzea edo igeri egitea, baina katuki hauek badakite igeri egiten, arrainak harrapatzeko uretan sartu behar direlako.

ELIKADURA. Lehoinabarrak animalia txiki eta ertainez elikatzen dira. Animalia horien artean hegaztiak, tximinoak, sugeak, intsektuak, antilopeak, gazelak, dortokak, untxiak, basurdeak, etab. sartzen dira. Bakarreko ehiza egiten dute. Gauez ehizatzen dute, egunez atsedean hartzen izaten baitira.

HABITATA. Lehoinabarren ezaugarri nabarmen bat zera da: habitat askotan bizi direla. Afrikako eta Asiako sabana, mendi, oihan, basamortu eta baso askotan bizi dira. Sahara aldean oso ugariak dira. Batzuk leku hotzetan bizi dira, adibidez elurreko lehoinabarrak.

UGALKETA. Lehoinabarrek aldiko 2-4 kume izan ohi dituzte, baina badaude kasu batzuk non 6 kume jaio diren. Kumeak 3 hilabete egoten dira amaren sabelean eta jaiotzean beren ilajea oso leuna izaten da, artilearen antzekoa.

Emeak bere kumeak urte bat eta bi hilabetera arte zaintzen ditu, hau da, kumeak helduak egiten diren arte. Hortik aurrera, lehoinabar gazteak bakar-bakarrik biziko dira, ugaltzeko momentura arte.

OHITURAK. Lehoinabarrek ohitura arraro bat dute: zuhaitzak despentsa moduan erabiltzen dituzte, hau da, beren harrapakinak zuhaitzetan gordetzen dituzte, horrela janaria beste harraparietatik babesten dute eta 2 edo 3 asterako dute.

AZPIESPEZIEAK. Ondoko taulan lehoinabarraren azpiespezie batzuk agertzen dira:

	Mota	Bizi da...
1	Afrikar lehoinabarra	Afrikako Sahara azpian
2	Indiako lehoinabarra	Indian
3	Arabiar lehoinabarra	Arabiar Penintsulan
4	Amurreko lehoinabarra	Asiako ekialdean
5	Pertsiako lehoinabarra	Iraneko iparraldean
...		

Mota guztietatik ezagunena lehoinabar afrikarra da.

Munduko mota guztietatik 7/10 galtzeko zorian daude.



DESBERDINTASUNAK.

Lehoinabarrak normalean gepardo eta jaguarrekin nahasten dira, baina berdintasunak ezaugarri fisikoetan bakarrik daude. Izaeran nahiko desberdinak dira: lehoinabarrak oso ausartak eta indartsuak dira, baina lasaiak. Jaguarrek eta gepardoek, ordea, borroka gustuko dute eta ez dute hainbeste atseden hartzen.

<http://eu.wikipedia.org/wiki/Lehoinabar> (Egokitua)

15. Testuak dio lehoinabarra katukien familiako ugaztun haragijalea dela. Horrek esan nahi du...

- A. ugaztunak jaten dituela.
- B. haragiz elikatzen dela.
- C. haragia gustatzen zaiola.
- D. katukien familiakoak jaten dituela.

16. Testuaren arabera, nola deitzen zaie ilea beltza duten lehoinabarrei?

- A. Lehoinabar beltzak
- B. Lehoinabar ilunak
- C. Pantera beltzak
- D. Pantera ilunak

17. Testuaren arabera, zeintzuk dira ehiza egiteko oso erabilgarriak diren zentzumenak?

- A. Ikusmena eta usaimena
- B. Ikusmena eta abiadura
- C. Entzumena eta abiadura
- D. Ikusmena eta entzumena

18. Zer esan nahi du lehoinabarrek "bakarreko ehiza" egiten dutela?

- A. Ehizan bakarrik ibiltzen direla.
- B. Ehizan egunez bakarrik aritzen direla.
- C. Ehizan hegaztiak bakarrik harrapatzen dituztela.
- D. Ehizan saiakera bakar bat egiten dutela.

19. Testuan HABITATA azpigitulua agertzen da. Hitz horren ordezkoa izan daiteke...

- A. Sabana
- B. Basoa
- C. Oihana
- D. Bizilekua

20. Begiratu testuan agertzen den munduko mapari. Zertan laguntzen dizu?

- A. Munduko kontinenteak kokatzen.
- B. Lehoinabarren habitata kokatzen.
- C. Testuaren laburpena ulertzen.
- D. Lehoinabarren ohiturak ulertzen.

21. Lehoinabarrek zuhaitzak despentsa moduan erabiltzen dituzte. Ohitura ona izan daiteke hori? Idatz ezazu arrazoi bat.

.....

.....

.....

22. Non aurkitu dezakegu hau bezalako testu bat?

- A. Ipuin liburu batean.
- B. Entziklopedia batean.
- C. Komiki liburu batean.
- D. Errezeta liburu batean.

23. Paragrafo batzuen hasierak letra larriz eta beltzez idatzita daude. Zein da horrela idaztearen asmoa?

.....

.....

.....

24. Testuko zer ataletan ematen da informazioa lehoiabarrek jaten dutenaren gainean?

- A. *EZAUGARRIAK* atalean
- B. *ELIKADURA* atalean
- C. *HABITATA* atalean
- D. *DESDERDINTASUNAK* atalean

25. Idatzi lehoiabarraren eta jaguarren arteko antzekotasun bat eta desberdintasun bat.

Antzekotasun bat:

.....

Desberdintasun bat:

.....